



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza

**Asteartea**  
**2008-02-19**

VIURTEA 1.365.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



## Diego Riaño Nafarroako Bertsolari Txapelketatik at

**LEITZA** Sei bertsolari lehiatu ziren larunbateko finalaurrekoan, eta seigarren geratu zen 7

**SABINO ALIJOSTES** TAK-EKO LEHENDAKARIA

«Trintxerpeko saioan ikusiko da zein den benetan taldeen maila»

**ARRAUNA** Gipuzkoako Batel Ligaxkan bigarren jardunaldia jokatu du Tolosaldeko klubak 3



Haizeari aurre egin zioten mendizaleek; behean, esfortzua ostean, indarrak berreskuratzen. HITZA

**Tolosaldeko Eskolarteko Xake Txapelketan, «oso maila altua dago»**

**XAKEA** Iragan asteburuan bigarren saioa jokatu zuten xake jokalariek gazteek 2

**Usabal mahai tenis taldekoek maila mantentzea lortu dute dagoeneko**

**TOLOSA** Finalerako lau partida geratzen direnean, bete dute helburua 3

## EUSKAL HERRIKO TXOKORIK EDERRENAK EZAGUTUZ

**IBARRA** Haitzetan Raju Mendi Taldeak eta Bai Euskal Herriarik antolatuta, herenegun Balmasedara egin zuten txangoa 18 lagunek 6

## Anjel Arrospide Urrezko Aizkoraren finalean ariko da

**AIZKORA** Finalerdiak irabazi zituen Aierberekin; Olano eta Saralegi leitzarrak ere finalera 7

## Gernikaren aurka 3-2 galdu du hirugarren mailako Tolosa futbol taldeak

ERREDAKZIOA

Hirugarren mailako Tolosa futbol taldeak galdu egin zuen Gernikaren aurka, 3-2ko emaitzarekin.

Tolosa CFren gainerako taldeen emaitzak hauek izan ziren: Nesken 3. mailan, BTLSk 3-1 irabazi zion Tolosari; Jubenilen Ohorezko dibisioan, Tolosak 2-1 irabazi zuen Ariznabarraren aurka; Lurraldeko 1. mailan, Tolosak eta Munibek 2-2 berdindu zuten; Jubenilen Ohorezko mailan, Oriok 0-2 galdu zuen Tolosaren aurka; Kadeteen Ohorezko mailan, Tolosak eta Real Unionek 2-2 berdindu zuten; Kadeteen 1. mailan, Intxurreren aurka 0-2 irabazi zuen Tolosako taldeak; azkenik, Infantilen Ohorezko mailan, Tolosak irabazi zuen 2-0eko emaitzarekin, Zarautzen aurka.

## Urrezko Aizkora Txapelketaren finalerako txartela lortu du Anjel Arrospidek

**Aizkora** » Etorbizunekoan mailan, Olano eta Saralegi leitzarrek irabazi ondoren, finala jokatuko dute.

ERREDAKZIOA

Urrezko Aizkora Txapelketaren finala jokatuko txartela eskuratu zuen herenegun Anjel Arrospide leaburuarrak, Aierbe II. arekin batera, Lopez eta Vicenteren aurka gailendu ostean.

Aurkariak oso indartsu hasi ziren lanean, eta lehenengo probetan aurretik ibili ziren, baina ezin izan zioten ateratako aldeari eutsi, eta azkenean Arrospidek eta Aierbek aurrea hartu zieten, martxoaren lehen Azpeitian izango den finalerako txartela lortuz.

### Etorbizunekoan mailan, ustez ahulenak garaile

Bestalde, etorbizunekoan mailako aizkolariak ere lehiatu ziren herenegun. Hain zuzen ere, Mugerza III. a mutrikuarrak eta Alkizalete II. a asteasuarrak Olano eta Saralegi leitzarren aurka egin zuten saioa. Lehia honetan izan zen txapelketako ezustirik handiena, izan ere, ustez multzoko ahulenak zirenek irabazi zuten. Arkaitz Olanok eta Ruben Saralegik, 17 segundoko aldearekin. Beraz, hauek ere Azpeitiako finala jokatuko dute, kasu honetan, Larretxea lehengusuen aurka.

# «Baliorik gabeko» partida galdu du Tolosa-Aralarrek

**Tolosa** » Viajes Marfil taldearen aurka 81-73 galdu zuten tolosarrek; hurrengo partida lehen faseko azkena izango da.

ERREDAKZIOA

Datorren faserako «baliorik izango ez duen» partida izanik, bisakibaloitzaileak eramango zuela. Les jokalaririk nafarrak 30 puntu erdietsi zituen partida osoan eta bere abia-durak min handia egin zien tolosarrei.

Nahiz eta partida nahiko parekatua izan zen, hasieran etxeok aurreratu ziren (20-17 lehen laurdunen artean). Gero, kanpotarren susperraldia etorri zen eta atsedenaldira aurretik joan ziren (38-43). Hemendik aurrera, ordea, nafarren antolatzailearen lanak etxeok aurretik jarri zituen eta horrela mantendu zen markagailu

Gauzak horrela, Kikeren ohiko bajarekin bidaia zuen talde tolosarrek. Etxekoek ere baja ugari zizuten, partidaren garrantzia ikusita. Partidaren helburua «ondo pasatzea eta lesionaturik ez izatea» zen.

Partida hasieratik ikusi zen erritmoa etxeok taldeko antolatzaileak eramango zuela. Les jokalaririk nafarrak 30 puntu erdietsi zituen partida osoan eta bere abia-durak min handia egin zien tolosarrei.

Nahiz eta partida nahiko parekatua izan zen, hasieran etxeok aurreratu ziren (20-17 lehen laurdunen artean). Gero, kanpotarren susperraldia etorri zen eta atsedenaldira aurretik joan ziren (38-43). Hemendik aurrera, ordea, nafarren antolatzailearen lanak etxeok aurretik jarri zituen eta horrela mantendu zen markagailu

lua partida amaierara arte, azkenean 81-73 egin arte.

### Lehen faseko azken partida

Multzoko beste emaitzei begiratu, ez da jardunaldi batere ona izan Tolosa-Aralarrentzat. Urdaneta-aren etxetik kanpoko garaipenak «min handia» egin du bigarren faseko azken jardunaldia eta tolosarrek etxean jokatu dute.

Datorren astean izango da lehen faseko azken jardunaldia eta tolosarrek etxean jokatu dute, oraindik goian edo behean sartuko den ez dakien Suminan talde bizkaitarraren aurka. Jardunaldi honetako emaitzen ostean, astean zehar aztertu beharreko lana izango da zerk duen garrantzi gehiago etorkizunari begira: garaipena lortu edo porrota jasan. Neurketa larunbatean izango da, 16:00etan, Usabal kiroldegian.

# Tolosaldeko Eskolarteko Xake Txapelketan, «oso maila altua»

**Tolosa** » Alebinen maila da denetan parekatuena; txapelketaren hirugarren saioa hurrengo igandean izango da Kultur Etxean.

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan Tolosaldeko Eskolarteko Xake Txapelketen bigarren saioa jokatuko dute. Lehen saioa orduz gertatuak ahaztuta, «oso xake ona» erakutsi zuten jokalariek. Xakean adinak baino zailtasunak eta praktikak garrantzi handiagoa dutela erakutsi zuten gainera, «ez baitzen ia desberdintasunik antzematen maila batean nahiz bestean jokatzen ari zirenen artean».

Sailkapenari begira denetik ikusi ahal izan zen. Infantiletan adibidez, Orixeko (Tolosa) Beñat Salbarredi nabarmen da orain lehen postuan. Hiru puntu ateratzen dizkio bigarren doan Jon Romero (Uzturpe Ibarra). Alebinetan berriz, gauzak oso estu jarraitzen dute. «Dudarik gabe aurtengoan hauxe da jokatzen ari direnen artean mailarik zailena, denak oso paretsu baitaude». Jesusen Bihotzako (Villabona) Aitor Villena doa lehena, baina puntu bakarrera ditu Pello Errotako (Asteasu) Mikel Muguruza eta San Juaneko (Alegia) Unai Mendizabal. Benjaminetan Hiruki (Tolosa) Mikel Aretxagak aurreko martxan jarraitzen du eta denak irabazita lehen postuan da lasai asko. Bigarre-



Herenegun jokatutako Eskolarteko Xake Txapelketaren saioa irudiak. HITZA

na, San Juaneko Igor Mendizabal dago, bi puntura. Nesken sailkapen berezian izan da aldaketarik nabarmena. Iazko txapelketan, Samaniegoko (Tolosa) Jone Mujikak, «saio bikaina» borobildu zuen eta lehen postuan da orain, aurreko astean lehena bukatu zuen

Anoetako ikastolako Aitana Eizagirreri aurre hartu eta gero.

Bestalde, datorren igandean hirugarren saioa jokatuko dute, Tolosalde Kultur Etxean goizeko hamaketatik aurrera. Jokatuko nahi duenak parte hartzeko aukera izango du oraindik ere.

## Koordinazio Batzordea bilduko da gaur udaletxean, 19:30ean

**Alegia** » Pasa den larunbatean Kalezkale ekimena burutu zuten, «tokian tokiko beharrak ikusi eta aztertzeko».

ERREDAKZIOA

2008ko udal aurrekontuak lantzeko prozesuarekin aurrera jarraitzen dute Alegian. Horren adibide, aurreko larunbateko Kalezkale ekimena da. Goizean goiz elkartu eta herriko kaleetan barrera ibilaldia egin zuten Udalen ordezkariek eta herritar batzuk, tokian tokiko beharrak bertatik bertara ikusi eta aztertzeko. Zerrendatutako lanen artean lehentasunak markatzea dute hurrengo pausoa, premiarik handiena dutenetatik hasita.

Hala, gaur, denon arteko Koordinazio Batzordea dute, 19:30ean udaletxean. Talde bakoitzak eginkoaren berri eman eta elkarren artean dena uztartzea izango da helburua. Parte hartu nahi duten guztiak bilera irekia izango da, orain artekoetan bezala.

## Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leizta.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulatorio: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerbitzu: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosaldeko bus:** 943 650621

**Leitzarren autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leizta):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320



Tolosaldeko Arraun Klubeko kadete mailako mutilak, igandeko jardunaldian, Orioko uretan. HITZA

## Lehendabizikoen artean dira TAKeko hamaika taldeak

**Arrauna** » Gipuzkoako Batelen Liga ari da jokatzeko; jubenil-senior mailako neskek garaile izan ziren igandeko saioan.

### ESTI EZEIZA

Gipuzkoako Batelen Ligako bigarren jardunaldia jokatu zuten herenegun Orioko kostako uretan. Bertan lehiatu ziren Tolosaldeko Arraun Klubeko hamaika batel.

Gainera, horietako bat garaile izan zen bere mailan, jubenil-senior nesken Tolosaldea A taldea hain zuten ere.

### Lortutako emaitzak

Sei maila ezberdinetan ari dira lehiatzen eskualdeko arraunlariak. Alde batetik, nesketan, infantil-kadete kategoriakoetan, A taldekoak laugarren geratu ziren, eta B-koak, zortzigarren. Jubenil-seniorretan berriz, aipatu bezala, A taldekoak izan ziren garaile, eta

Tolosaldea B-koak bosgarren sailkatu ziren.

Mutilen artean ere emaitzak antzekoak izan ziren. Infantilen kategorian, A taldekoak bosgarren geratu ziren eta B-koak bederatzigarren. Kadeteetan Tolosaldeko hiru talde aritu ziren lehian. Lehendabizikoen artean, ondorengoak, laugarren, eta azkenik, C-koak, 13. ailegatu ziren. Jubeniletan, laugarren sailkatu ziren eskualdekoak. Azkenik, seniorretan, 2. geratu ziren.

## «Trintxerpen ikusiko da zein den benetan bakoitzaren maila»

**SABINO ALIJOSTES** » TAKeko Lehendakaria

**Arrauna** » Orion jokotutako bi jardunaldien ostean, hurrengo hitzordua Trintxerpen dute TAKeko arraunlariak.

### E. EZEIZA

Urtarrilean aurkeztu zituen Tolosaldeko Arraun Klubak bere taldeak. Orain, Gipuzkoako Txapelketan parte hartzen ari dira eskualdeko hamaika batel talde. Klubeko lehendakaria da egun, Sabino Alijostes. Hori dela eta, hasi berri den denboraldiaz mintzatu da tolosarra.

**Zer moduz joan zen azken jardunaldia?**

Ongi, nahiko ongi joan zen. Uste baino hobeto, izan ere, ura eta hai-zea nahiko gaizki zeuden.

**TAKen hamaika talde ari dira lehian. Arraunlari berri asko al dituzue?**



HITZA

Bai, sei kategorian ezberdinetan ari dira lehiatzen arraunlariak. Horietan, maila txikienetakoak berriak dira.

**Zer moduz ikusten dituzu Tolosaldeko taldeak?**

Oso ondo, Orio, Zumaiia eta Pasaiako taldeekin ari dira eta lehen postuetatik oso gertu daude. Esatera-

ko, infantil-kadeteen mailan auktura handiak dauzkagu dominak eskuratzeko. Senior neskek berriz, joan den asteburuan irabazi egin zuten. Infantilak berriz, arraunlari berriak dira, baina hor dabilta, diferentziak laburtzen.

**Noiz hasi ziren entrenatzen, eta zenbatean behin elkartzeko dira?**


Urriari hasi ziren entrenamentuekin. Orain, ia egunero ibiltzen dira arraunean.

**Harrobia ba al dago?**

Bai, harrobi handia daukagu. 2000. urtean hasi ginen batelak berreskuratzen, eta 2003an nesken talde batekin, txapelketan parte hartzen hasi ginen. Orain berriz hamaika talde dauzkagu.

**Hurrengo hitzordua Trintxerpen duzue.**

Bai, han ikusiko da errealitatea eta bakoitzaren maila zein den. Izan ere, Orion, kale batetik bestera diferentzia zegoen, itsasaldiaren gora-beheren ondorioz.



Emiliano Anton eta Eric Díeza jokalariek asteburuko partidari. HITZA

## Usabal MT taldekoek mailan mantentzea lortu dute jada

**Mahai tenisa** » 4-2ko emaitzarekin Natacion Pamplonari irabazi ondoren zortzigarren postuan dira eskualdekoak.

### ERREDAKZIOA

Finalerako lau partida falta direnean, eta Natacion-Pamplona taldearen aurka irabazi ostean, maila berean jarraitu ahal izango du Olaederrako mahai tenisa taldeak. Hori zen denboraldiaren hasieran zehaztu zuten helburu nagusia, eta azkenik lortu dute.

Olaederrako hiru taldeak txa-

pelketa ezberdinak ari dira jokatzeko, eta denak Gipuzkoatik kanpo aritu dira asteburuan. Olaederra TMk A autonomien arteko ligan dihardu eta Gasteizen jokatu zuten, CD Zuzenak-en aurka. Hemen, eskualdekoak izan ziren garaile 4-3ko emaitzarekin.

Olaederra B-koek ez zuten horrenbesteko zortzea izan. Hauek Abadiño izan zuten aurkari. Azkenik, Usabal MT-Tolosakoek lehen aipatu bezala 4-2 irabazi zuten, Natacion-Pamplonaren kontra. Hala, sailkapeneko zortzigarren postuan jartzea lortu dute eskualdekoek, eta bide batez, mailan mantentzea.

## Jarrillerosi aise irabazi dio Laskorainek

**Areto futbola** » Asteburuko partidari 1-8 irabazi ostean, hirugarren postuan jarraitzen du horitxoen taldeak.

### ERREDAKZIOA

Aurreikuspen eta hausnarketa guztiek kontrarik iragartzen bazuten ere, aparte nagusitasunez ebaztu zuen Laskorainek joan den larunbatean Portugaleteko Zubialde kiroldegiko partidari. Izan ere, 1-8 irabazi zuen Jarrillerosen kontra.

Partida berehala ipini zen maldan gora horitxoentzat, bizkaitarren oinetatik irtendako kalitate-dun konbinaketa batek Domentxeren atea zulatatu baitzuen 1-0-ekoa ezarri elektronikoa. Norgehiagokaren itxurak eta jasotako lehen golak, banakako defentsatik, zonakako defentsarako al-daketa bat behartu zuen Alonso entrenatzailearen sistemari. Eraldaketa honen ondorioz, ikastalakoek «irrikatutako erosotasun defentsiboa» eta «izpiritu erasoko-

rra» ezarri zituzten berehala. Telleriak eta Gilek birritan, 1-4koekin biratu zuten markagailua atsendaldiaren aurretik.

Bizkaitarrek gogotsu eta lehiakor ekin zituen bigarren zatia, baina Gilek aldeareagotu zuen gipuzkoarren mesedetan. Jarrillerosekoek, nabarmenki jeitsi zituzten besoak eta tolosarren esku utzi zuten ekimen osoa. Telletxeak beste bi golei esker eta Barriolak, markagailua itxi zuten 1-8-ko azken emaitzarekin.

Garaipen honekin, hirugarren postuan jarraitzen dute Alonsoren mutilek, eta datorren astean Iturriorendoren bisita jasoko dute Usabalgo kiroldegian.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Tabernaria.** Anoeta. Itzuli tabernak neska euskalduna behar du. Zortzi edo lau ordutarako. Interesatuek deitu 635 74 52 91 edo 943 69 43 13ra.



Triptikoaren azalean udalerritik egin daitekeen mendi ibilaldiaren mapa argertzen da. HITZA

## Udalerrri osoa hartzen duen informazio-triptikoa kaleratu du Udalak

**Anoeta** » Guztira 5.000 ale argitaratu ditu eta besteak beste, etxe guztietara zabalduko du aste honetan triptikoa.

**IMANOL GARCIA**

Anoetako Udalak, Kultura Batzordearen bidez, udalerrria bere osotasunean hartzen duen informazio-triptikoa argitaratu du. Guztira 5.000 ale kaleratu ditu eta herrian etxe guztietako buzoietan sartuko ditu. Ondoko herrietara ere bidaliko ditu aleak eta Tolosaldea Tour-ek ere izango ditu bere bulegoan. Triptikoa egiteko %40ko diru laguntza jaso du Udalak. Eusko Jauriaritzatik eta Kutxatik jaso dituzte diru laguntzak.

Orain arte Anoetari buruz ateratako triptikoak monografikoak izan dira. Alde batetik, Basagain Burdin Aroko herrixkari buruzkoa eta bestetik udalerrian zehar markatuta dagoen ibilbideari buruzkoa.

### Hainbat ikuspegi

Atera berri den triptikoan Anoetari buruzko informazio ugari dago. Alde batetik, mendi ibilbidearen mapa dago. Ondareak leku garrantzitsuak du ere bertan: baserriak, San Joan Bataiatzailearen eliza,



Aurtengo dantza sokaren une bat eta Basagainen indusketak egiten. HITZA

Donejakue bidea, Burdin Aroko Basagain herrixka, jai eta ospakizunek ere bere tartea dute: dantza soka, San Joan bezperako afaria eta koroaren emanaldia eta herriko festak.

Beste atal batean bertako produktuen berri ematen da triptikoan, baita ere herrian dauden hiru jatetxerri buruzkoa. Bestalde, herriri buruzko informazio orokor eta bitxikeriak ematen ditu.



## Ernio Kaxkagor elkartearekin

**AIZTONDO** » Adunako zenbait gaztek, Kaxkagor elkartearekin batera, Ernio mendira igo ziren asteburuan. Poliki-poliki Gipuzkoako mendi desberdinak igotzeko asmoa dute. «Plan ederra goiza pasatuz, inguruko parajeak ezagutu eta naturataz gozatzeko», azaldu dute. HITZA

## Laburrak

### Frontenis Master Txapelketa antolatu dute

**ALKIZA** » Frontenis Master Txapelketa antolatu dute Alkizan. Antolatzaileen esanetan, ondo pasatzea eta kirola egitea da txapelketaren asmoa. Txapelketa bikoteka egingo dute eta bikotekaren bidez zehaztuko dira. Edonork parte har dezake eta baldintza bakarra hamasei urtetik gora izatea da. Partaide bakoitzak 5 euro ordaindu behar ditu. Izena emateko epea hilaren 24an amaitzen da eta zerrenda Elizegi tabernan dago jarrita.

### Xake Txapelketarako izena emateko aukera

**ANOETA** » Xake Txapelketa antolatu du Udalak. Martxoaren 9an izango da, 10:30etik 12:30era eta 15:30etik 17:30era, kiroldegian. Herriko ume eta gaztetxoek hartu ahal izango dute parte, eta Anoetako Ikastolan ikasten dutenek, nahiz eta anoetarrek ez izan. 5 maila egongo dira: aurrebenjaminak (LH1-LH2), benjaminak (LH3-LH4), alebinak (LH5-LH6), infantilak (DBH1-DBH2) eta kadeteak (DBH3-DBH4). Izen emateko aukera hilaren 22a arte egongo da irekita eta kiroldegian edo Ikastolan egin daiteke.

### Koadrilen Eguna antolatzeko bilera, bihar

**ANOETA** » Herriko festetako Koadrilen Eguna maiatzaren 17an izango da aurten. Egun hori antolatzeko bilera egingo dute bihar, 19:00etan, udaletxean. Herriko koadrila guztiei eta herritar orori dei egingen zaie parte hartzera.

### Eneko Galarragaren egoera hizpide, bihar

**VILLABONA** » Hilaren 26an berriro epaituko dute Eneko Galarraga Paueko Auzitegian. Urtarrilaren 24ean atxilotu zuten Urrugneko bere etxean eta ondoren Frantziatik atzera bota zuen bere aurkako euroagindua, antza denez, Euroagindua onartzeko nahikoa frogaz ez zeudela argudiatuta. Bere senide eta lagunak bihar, 18:00etan Berdura plazan, agerraldia egingo dute. Hauek azaldu dutenez, «Enekoekin eta azken aldian euro aginduaren babesean ematen ari diren gertaera errepresiboak agerian jartzen dute euskaldunak trofeoak garestu espainiarrentzat. Espainiaren eraldi errepresiboaren beste adibide bat baino ez denez». Agerraldian, egun kasua zein egoeratan dagoen agertzeaz gain hurrengo egunetarako antolatutako ekimenen berri emango dute.

digital  
h  
@

Hilaren 21ean, ostegunean, 12:00etan  
**INAXIO PERURENA**  
harri-jasotzailearekin elkarrizketa digitala.

HITZAren erredakzioan  
izango da zuzenean zuen galderak erantzuteko.  
Aurrez ere zuen galderak bidal ditzakezue.



## Ipuin marraztuen lehiaketa abian

**Anoeta** » Parte-hartzaileek martxoaren 14a baino lehen aurkeztu beharko dituzte euren lanak; sari banaketa, apirilaren 23an.

### ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak ipuin marraztuen lehiaketa jarri du martxan. Aurten berrikuntza bat bameratu dute antolatzaileek, hain zuzen ere, maila berri bat ireki dute, DBH4tik aurrerako herritar gazte eta helduek parte har dezaten.

Parte hartu nahi dutenentzat, hauek izango dira bete beharreko ezaugarriak. Batetik, 8 urtetik gorako Anoetako Ikastolako ikasleek eta Anoetan errolatutako pertsona guztiak har dezakete parte. Bestetik, ipuinak marraztuak izango dira, hau da, euskarazko testuz eta

marrazkiz osatuak; lanak bakarka edo binaka egin ahal izango direlarik.

Halaber, ipuinak eskuz edo ordenagailuz idatzita egon daitezke; gutxienez orri bat eta gehienez hiru aurkeztuko dituzte parte-hartzaileek, marrazkiak barne.

### Epeak eta sariak

Ikastolako ikasleek bertan aurkeztu ditzakete euren lanak, eta gainera, udalarekin bertan utzi ditzakete. Guztiak ere martxoaren 14a baino lehen aurkeztu beharko dute lana.

Irabazleek diru kopuru ezberdina jasoko dute, adinaren arabera. Lan saritu guztiak liburuxka bat argitaratuko dute. Sari banaketa, aldiz, apirilaren 23an izango da, asteazken arratsaldean, Liburuaren Nazioarteko Egunarekin bat eginez.

## Batzordeen bilerak, gaur eta bihar

**Amezketak** » Gaur kultura batzordekoek egingo dute eta bihar gizarte, ongizate eta ingurumen taldekoek, balioanitzeko gelan.

### ERREDAKZIOA

Amezketako hainbat batzorde aste honetan egingo dituzte bilerak. Hala, gaurkoan kultura batzordekoen txanda izango da, 20:30etik aurrera balioanitzeko gelan. Bertan, besteak beste, UEMAn sartzea aztertuko dute. Halaber, beste hainbat gai ere jorratuko dituzte: elkarteei laguntzak; 12-16 urteko gazteen dinamizazioa; urteko kirol, aisialdi eta ikastaroen programa; eukara lantzea; herriaren historiari buruzko liburua eta Agenda 21eko dagozkion ekintzak batzordeari pasatzea.

Bihar, berriz, gizarte, ongizate eta ingurumena batzordeak egin-

go du bilera, 20:30ean balioanitzeko gelan.

Gai zerrenda prest dute dagoeneko eta hauek izango dira jorratuko dituztenak: ur kudeaketa egokia; balioanitzeko gelaren erabilera; helduen eta jubilatuaren programa aukeratzeko; zaborren mankomunitatearen berri ematea; langileen lan poltsa eta ordezkaketa; osasun zentruarekin hitzordua hartzeko gai zerrenda prestatu; Tolomendiko informazioa; artzai txabolen proiektua eta Agenda 21eko dagozkion ekintzak bi batzordeei pasatzea.

### Hirigintzakoak ere bildu dira

Hirigintza, obretarako eta kontuen batzordeak ere atzo iluntzean egin zuen bilera. Bertan gai ugari jorratu zituzten. Besteak beste, Ola aldeko industrialdea, Jaurgi Eremuko Plan partziala, Larraitz bideko etxebizitzak eta Papel Aralar SA ingurumen baimena.

## Zurea da hitza info

## Noiz arte istripu gehiago bidegurutze honetan?

**Tolosaldeak** » Lau kasu ezagutu ditut bidegurutze horretan eta guztiak puntu berean: bertan dagoen STOpean.

### HERRITAR BAT

Amaroztik Leaburura doan errepidean edo Alegiatik Tolosara dagoen N-1aren bigarren sarreran auto istripu ugari gertatu dira. Lau kasu ezberdin ezagutu ditut eta denak puntu berean, bertan dagoen STOpean. Bertan ez da alde baten errepideirik kusten, Leabururitik beherantz datozten autoak ez dira ikusten, itxurakerirako bakanrik dagoen beldardiaren erruz. Zenbat istripu gehiago gertatu behar dira bertan, bidegurutze hori



Puntu honetan gertatu izan dira istripuak.

kompondu dezaten? Lotsagarria da behin eta berriz istripuak gertatzen diren puntu bat bere horretan uztea, hare lotsagarriagoa da azterketarik ez egitea eta zergatik den puntu hori hain arriskutsua galdetzea. Errepideen kudeaketa

Gipuzkoako Foru Aldundiarena da baina nortzuk dira hauek? Non daude? Zein da Ertzaintzaren lana, istripua gertatu den lekuan isuna jarri eta hurrengoaren zain egotea? Ez dakit baina ardura duenak zerbait egin beharko luke.

## Soka motzean

«Ez dirudi otsaila denik, jende ugari ari da etortzen»

### JUSTA ZUBELDIA

Supermerkatuko harreragilea

### IÑIGO TERRADILLOS

Tolosako Maxi Eroskin egiten du lan Justa Zubeldiak.

**Zenbat urte daramatzazu supermerkatuan lanean?**

Tolosakoan ireki zenetik, hau da, duela 15 urtetik, eta aurretik Ordizian aritzen nintzen.

**Zer moduzkoak dira Tolosaldeko erosleak?**

Orohar, jende jatorria delaesango nuke.

**Gizonezkoak ala emakumezkoak etortzen dira gehien?**

Oraindik emakumezko gehiago etortzen da, hala ere, gero eta gehiago dira gizonezkoak.

**Egun, zeri begiratzen diogu gehien kalitateari ala prezioari?**

Denetik dago, baina kalitateari gehiago begiratzen diogu orain.

**Astero zenbat gastatu ohi du jendeak, batez beste?**

100 euro izaten da batez bestekoa.

**Hilabete hasiera edo bukaera den nabaritzen al da?**

Bai, asko, baina hilabete honetan ez gehiegi, jende asko ari da etortzen, eta ez dirudi otsaila denik.

**Pasadizo asko izango dituzu.**

Bai, batik bat, alarmak jotzen duen aldiekin.



I. TERRADILLOS

2003. OTSAILAK 20

“Egunkariarekin gertatu denaren parekorik ez dugu European orain arte ikusi”

Joan Smith, Pen Club International-eko idazle eta kazetari kartzelatuen batzordeko burua Erresuma Batuan.



www.egunkaria.info

munduan libre bizi ahal izateko **Egunkaria** libre munduan bizi ahal izateko



Orbel gainean eserita argazkiaren zain. Ez da erraza argazki batean horrenbeste jende irrifarez ateratzea, baina mendi irteerak... HITZA

Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju Taldeak, 'Euskal Herria ezagutzuz, Lurraldetasuna sustatuz' egitarauaren baitan Bizkaia mendira irteera egin zuten herenegun, 18 lagun eta Txo bildu zirelarik.

## Mendia eta euskara aitzaki

### ASIER IMAZ

**M**endi irteera batek eman dezakeenak ez du parekorik. Zein txikia den Euskal Herria... Eta zein handia egiten duen euskarak.

Mendi irteera bat ama lurra eta berak sortutako ororekin amodioa egitea da. Euskara naturaren hizkuntza da: argia eta iluna agerian unkiagarri eta lotsagarri uzten dituen herri honen bihotza.

### Igandea; goizeko 06:30ak; iratzargailua; deabrua; Amen

«Zuek daukazue moralia. Igandean ordu horietan gora». Larunbat gauean pote batzuk hartzera joan zenaren azken hitzak izan ziren «zintzo ibili» esanaz agurtu aurretik.

Igandea da, goizeko 06:30ak eta iratzargailua martxan da 18 ibartarren etxeetan. Begiak zabaltzeko adorerik gabe, buruak zer gertatzen den galdetzen du lehenik. Ondoren, egitaraua begiratzen du eta mendi irteeraz gogoratzen da. Azkenik, deabruari ematen dio erreleubua, «goizean deabrua azaldu zaidak ohe ondoan jo eta su berriketan, ukabilkada bat eman eta bidali egin diat».

Goizeko zazpiak eta hamar, Ibarrrako Kultur Etxearen parean autobus txikia zain. Jende multzo bat aurkitzen da bere inguruan; «Nortzuk etorri ote dituk gaurkoan? Nire zain ote?». Gerturatu eta ez dago urduritasunik, zuriz pintatutako lo aurpegiak lepo gainean. Antolatzaile bat falta da; «ez nauk azkena. Honek lo hartuko zian». Telefonoz deitu eta halako batean eskegi ostean, bere erantzuna: «ostiahi!». Amen.

### Egunkariak; mendigoizaleak; bigarren loaldia; eguraldia

Autobus txikira igo eta egunkariaren merkaturia martxan jarri da. «Irakurri al duzu Gara?». «Ez, nik Berria daukat». «Bukatutakoan utzi mesedez». «Egunkari koena izugarria da». «Asteazkenean elkarretaratzea Ibarra sarreran».

Autobus txikian aulkari gutxi gertatzen dira hutsik. Burua altxa eta «Hi, zenbat bildu gaituk?», «17 mendigoizale, parrandazale bat eta Txo».

Bigarren loaldia egiteko aukera bikaina eskaini beharko luke berez A-8ak. Batzuk hori egin dute, besteek Txo txakurkumea hartu dute jostailu eta atzealdekoak eguraldiaz hasi dira hizketan: «Aste osoan bezala». «Nik haizea egingo duela entzun dut eta mendira doan hotza izango duela gainean». «Nik ere hego haizea egingo izango dugula entzun dut». «Artzain batek martxoan edo maiatzean elurra izango dugula esan du».

Orion (Gipuzkoa) itsasbehera dago eta bidesarian ez dago kontrolik.

### Motxilak; hutsuneak; amodioa; gosaria; algarak; multzoa

Autobusak atzeko atea Lanzasagudas (Bizkaia) herrian zabaldu du eta bertatik 15 motxila inguru ateratu dituzte. Etxetik ekarritakoak eta ez ekarritakoak bizkarrean hartu eta aurrera; «Egun bat Ordunteko mendikatean galdurik!».

Lau belaunaldi ezberdinetako 18 ibartar, Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriari taldeek egindako deialdiari erantzunez; «ez genian uste horrelako erantzunik, hau oso

ondo zegok». Belaunaldi ezberdinen artean hizketaldi ezberdinak sortzen dira egunean zehar. Mendiko bideak ezberdinak diren bezala, hizketaldiak ere horrela izaten dira. Atsedene guneak ere bietan aurkitzen dira.

Atzekaldean jartzean etxetik ekarritako motxila, bere pisua nabaria egiten da. Ohituraren poderioz ordea, atzean duzunaren pisua txikitzen doa, mendian zuhaitz artean dabilen gorputzaren zati bilakatzen delarik. Bizkarreko minak eta hutsuneak gero eta arinagoak dira eta hausnarketa isileko bideek gorputz berri bat aurkezten dute, mendian eginiko hitzek ere jatorri ezberdina dute: ohiko kaixo eta agurren harresiak erori dira, 18 bidexidorrek tontor bera dute helburu. Amodio garaia da.

«Gosari luzea egin dugulako iri-

tsi dira gure aurretik tontorrera gurekin batera irten diren bi ezlagunak». Gidari despistatuak elgarak sortu ditu mendi gainean.

Ordunteko urtegiaren gaineko eta pago eta haritz orbelدون arteko zeharbidean irrifarreak eta haize bortitzak dira multzoaren lagun.

### Jakintsua; Herriko Taberna; txikia handi; euskara

Hasieran igoa jaisteko garaia dela dirudi, arratsaldea da jadanik. Gidaria ez den arren, zerbaitengatik da multzoko beterranoa eta jakinduriak autobusa gerturatzeke agindua eman du, askoren ezustean. Oin azpiak bero baldin badaude, eskuak beroago «taldeko jakintsuari» zuzendutako txaloei esker.

«Orain Balmasedako Herriko Tabernara joango gara, bertan merienda txiki bat prestatuko digute eta gero etxera», esan du antola-

tzailetariko batek. Baina merienda txiki honek badu handi egiten duen gertaera hunkigarria.

Antolatzailetariko bi hiru aste lehenago Balmasedara (Bizkaia) gerturatu ziren ibilbidea ikusi eta eguna antolatzeke asmoz. Mendi itzulia amaitzean, Balmaseda herrira hurbildu ziren. Pote bat hartzen ari zirela, euskaraz hizketan hasi ziren Herriko Tabernako jendearekin. Balmasedan euskaraz egitea ez da Ibarren egitea bezala. Bi ezeguz euskarak leku handirik ez duen herri batean euskaraz mintzatzen hasten baldin badira, hizketaldia harreman bilakatzen da: bi ibartarrek bertan egin zuten lo, baita mendi irteera amaitzean Herriko inguru zen merienda adostu ere.

Autobusa Balmasedan geratu zenean, 18 ibartarrak Herrikora zuzendu ziren gosez. Tabernaren kanpalkaldean, sukalde txiki bat prestatu zegoen. Asko barrura sartu baziren ere jaramon handirik egin gabe, beste hainbat jokaldiarekin geratu ziren; «Hau guregatik jarri ote dute?». Etxean bezala hiru mahai elkartu eta gertaeren zain geratu ziren gehienak, antolatzaileak bertako gazteekin besarkadak eta muxuak emanaz ari ziren bitartean.

Realak lehen gola sartzearekin batera, Herriko langileak hirugiharre beroa ekarri zuen plater batean kanpoan atunduriko sukaldetik. «Ederki sartzen duk janari beroa; asko estimatzen diagu horrelako lana hartzea guregatik». «Sukaldea ez dugu oso ongi eta kanpoan jarri dugu sua». Bigarren platerkadaren ondoren hirugarrena, laugarrena... ardo botilak eta leña freskoa.

Ordubate inguru konpainia ederrean lasai egon ondoren, etxerako unean, sukaldari lanetan zebilen gazteak etxe itxurako erailak zirela zurririk denak erakustez gain, argibideak eskaini ditu 18 ibartar ezagutu berrientzat, aspaldi ikusi gabeko lagun zaharrei bezala. «Euskara argitasunez hitz egiten denean, sortzen duena izugarria izan daiteke. Bestalde, iluntasunez edo artifizialki erabiltzen duena lotsagarri uzteko gaitasuna du hizkuntza berak».



Ibartarrak Balmasedako Herriko Tabernan, egun pasaren amaieran indarrak berritze aldera. HITZA

# Nafarroako Bertsolari Txapelketatik kanpo gelditu da Diego Riaño

**Bertsolaritza** » 6 bertsolari lehiatu ziren lehenengo finalurrekoan larunbatean eta seigarrena gelditu zen, 295 punturekin.

**NAIARA GARZIA**

Larunbat arratsaldean Iruñeako Txantreko Ama Salestarren aretoan jokatuak Nafarroako Txapelketako lehen finalurrekoan Diego Riaño txapelketatik kanpo gelditu zen eta Erika Lagoma izan zen irabazlea. Beraz, Erika Lagoma (343 puntu) zuzenean sailkatu da Elizondon martxoaren 15ean jokatu den finalerako. Bere atzetik, Julen Zelaia (331) eta Xabier Terreros (320,5) sailkatu dira, baina beste 2 finalurrekoak egin arte ixaron beharko dute. Azken 2 postuak Oier Lakuntzarentzat (298,5) eta Diego Riañorentzat (295) izan ziren.

**Riañoren saioa**

Diego Riaño larunbateko saioaren inguruan gogoeta egin du. «Lana normal egin nuen, baina jarri zidaten puntuan egokitu zitzaidan errimak ez zeukan halako aberastasunik». Honetaz gain, ba-



150 lagun inguru bildu ziren Iruñeako Txantreko Ama Salestarren aretoan finalurrekoak ikustera. BERTSOZALE ELKARTEA

karkako lanean gaizki-ulerter bat izan zuela adierazi du. «Nahiko irregularra izan zen nire saioa, baina zortziko handi politen bat ere bota nuen. Orokorrean argigelditu zen aurreneko hirurak beste maila batean aritu zirela».

Nafarroako Bertsotzale Elkartetik azaldu dutenez 150 lagun inguru bildu ziren Txantreko Ama Sa-

lestarren aretoan. «Bost bertsolari gazte eta beterrano bat aritu ziren Nafarroako Txapelketako lehen finalurrekoan. Bitor Elizagoien bitan izana da Nafarroako txapel-duna, baina belaunaldi berrikoek aurrea hartu zioten Txantrean». Lagomaren eta Zelaiaeren arteko lehia «estua» izan zela gehitu dute. «Erika Lagoma oso seguru eta

kontzentratu aritu zen saioan, baina Julen Zelaiaetak ez zizkion gauzak batere erraz jarri». Azkenean, ordea, bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen.

**Elosegi, martxoaren lean**

Migel Mari Elosegi *Luzek* martxoaren lean parte hartuko du Berako hirugarren finalurrekoan.

## Aurrerak beste 3 puntu lortzeko aukera galdu, eta zortzigarren postuan doa

**Futbola** » Taldea eskas xamar joan zen, jendea falta baitzen, eta 3-0 galdu zuten Cantolagua taldearen aurka.

**N. GARZIA**

Asteburu honetan ere Aurrerak ezin izan ditu 3 puntu eskuratu, Cantolaguaren aurka herenegun jokatuak partida galdu egin baitzuten 3-0ko emaitzarekin.

Jose Luis Arriurieta entrenatzaileak norgehiagoka laburtu du. «Hasieran borrokatu xamarra izan zen, baina jende asko falta genuen, 13 lagun besterik ez ginen joan, batzuk lesionatuta daudela eta beste batzuk, zigortuta. Lehenengo gola gure atean sartu genuen, eta aukeraren bat izan genuen baina ez genuen golik sartu».

Arriurietairen iritziz, «berez galdu behar ez genituen partidak galtzen ari gara, hori ez diot azkeneoengatik, bai, ordea, aurrekoengatik. Jendea ilusio gutxiarekin ikusten dut, aspirazioarik gabe».

Datorren asteburuan San Jorge taldearen aurka jokatu dute Leitzako futbolariak.

## Finalurrekoetan ariko diren Aspeko 4 pilotariak, sailkatuta

**Pilota** » Bengoetxerentzat finalurrekoetara sartzeko azken partida erabakigarria izanen da, Olazabalek, berriz, ez du aukerarik.

**N. GARZIA**

Asteburu honetan Binakako Txapelketako zazpigarren jardunaldiak jokatu dituzte hainbat pilotalekutan. Olazabal, Lasa III. arekin batera izan zen jokatzeko lehena, ostiralean jokatu baitzuten Olaizo-

la II. aretan eta Mendizabalen aurka, 22 eta 5 galduz.

Barriolak eta Gonzalezek azkeneko hiru partidak bezala, 22-21eko emaitzarekin irabazi zuten larunbatean Olaizola I. aretan eta Otxandorenaren aurka. Jokatuak 7 norgehiagoketatik zazpiak irabazi dituzte eta jada finalurrekoetarako sailkatuta daude.

Bengoetxea VI. ak ere larunbatean jokatu zuen Ruizekin, Titin III. aretan eta Laskurainen aurka eta 22 eta 16 galdu zuten. Titin eta Laskurain orain bigarren doaz, baina

esan beharra dago Oinatz Bengoetxeak partida hasieran zaintiratu izan zuela eta partida osoa horrela jokatu zuela. Atzo arratsaldean Tolosaldeko Asuntzionen erresonantzia egin zioten.

Barriola eta Gonzalez eta Titin eta Laskurain Aspetik jada finalurrekoetarako sailkatu dira. Datorren asteburua erabakigarria izanen da Asegarceko 2 bikoteak sailkatzeko. Lehia Olaizola II-Mendizal, Bengoetxea VI-Ruiz, Koka-Beginao eta Olaizola I-Otxandoren artean dago.

## Nafar Jokoetan 10etik 6 partida irabazi dituzte Aurrerako pilotariak

**Pilota** » Leitzan jokatuak denak irabazi zituzten, kanpoan, aldiz, ez ziren hain ongi aritu eta bakarra irabazi zuten.

**N. GARZIA**

Leitzako Aurrera Pilota Eskolak Nafar Jokoen barruan 10 partida jokatu ditu asteburu honetan zehar eta hauetatik 6 irabazi ditu.

Leitzako Amazabal Pilotalekuan 5 jokatu zituzten eta bostak irabazi zituzten. Kanpoan, ordea, ez ziren hain ongi aritu, eta 5 partidetatik bakarra irabazi zuten, Irurtzunen jokatuakoa, hain zuzen ere. Datorren asteburuan amaituko da Nafar Jokoen ligaxka.

Iera Agirrek Emakumezkoen Eliteko Lehenengo Diario Vasco Sariari parte hartu zuen Urretxun Maite Ruizekin, Evaristi eta Unanueren aurka, 30 eta 20 irabazi.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
**DOAN** agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**ANTONIA ETXEBERRIA AIERDI**  
(Mari Karmen Galparsoro gure lankidearen ama)

Maizpide euskaltegikook  
bat egiten dugu familiarekin une latz hauetan.



**Maizpide Euskaltegia**

**LAZKAO**  
2008ko otsailaren 19a



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralea:** 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalanztak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Kultur Asteak

■ **Villabona.** II. Kultur Astea Jesusen Bihotza ikastolan: tabako-kontsumoari aurre hartu hitzaldi-tailerria DBHleko ikasleek goizez eta gurasoekin 15:00etan Gurea erakusketa aretoan; 17:15ean ikasleen emanaldia Gurea aretoan.

### Deialdiak

■ **Amezketak.** Kultur Batzordearen bilera elkarteei emango zaion laguntza, kirol-aisialdi eta ikastaroen programa, euskara, historia liburua, UEMA n sartzeara aztertu eta Agenda 2leko dagozkion ekintzak batzordeari pasako zaizkie.

■ **Amezketak.** 1959an jaiotako amezketarrek Errioxako upategi batera joango dira martxoaren 1ean. Izen-ematea, 630 855500 (Joxe Mari Goikoetxea).

■ **Anoeta.** Barreterapia ikastaroa antolatu dute hilaren 21etik martxoaren 15era arte kiroldegian, ostegunetan 17:30etik 19:00etara edo larunbatetan 10:00etatik 11:30etara. Prezioa 30 euro. Izen-ematea udaletxe edo kiroldegian.

■ **Irura.** Kantuz Kantu Eraikitzen kantu afaria antolatu du Irurako Ikastolak hilaren 23an 20:30ean Anoetako frontoian: ibilbidearen aurkezpena, afaria, kantu saioa eta Unsain anaiekin erromeria. Txartelak Anoetako Buztina, Itzuli eta Arkupe tabernetan eta Irura ???  
■ **Tolosa.** Alpinok iraupen eskiko ikastaroa antolatu du 1994, 1995, 1996 eta 1997 urteetan jaiotako entzat, otsailaren 23-24an eta martxoaren 1-2 an. Sompport-en. Informazioa, 685 776504 (Xanti).

### Irteerak

■ **Zizurkil.** Irteera Iparraldera Emakumearen egunean: goizean Biarritzeko Txokolate Museoa eta bazkaria Baionako Trinketean. Izen-ematea, 28 eurotan, Aurrera plazako udal bulegoetan eta liburutegian.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Isabel Mujikaren margolanak ikusgai daude Sorron koadro dendan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.  
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.



Andoaingo Piano Jaialdian parte hartuko duten Loatzoko musika eskolako hainbat ikasle Villabonako Kultur Etxean. I. GARCIA

Loatzoko musika eskolako 30 ikasle Andoaingo Piano Jaialdian parte hartuko dute datorren asteburuan. Jendearen aurrean aritzeko eta isats-piano bat jotzeko aukera ematen die ekitaldi honek.

# Piano jotzaile jendaurrean

### ERREDAKZIOA

Asteburu honetan Andoaingo Piano Jaialdia izango da eta bertan parte hartuko dute hainbat piano jotzailek, tartean Loatzoko musika eskolakoek. Guztira, 500 ikasle inguruk hartuko dute parte. Maila ezberdinak daude, adinen arabera eta barkarka edo bikote bezala parte hartuz. 30 izango dira parte hartuko duten ikasleek.

Loatzoko musika eskolako 30 piano jotzaile ariko dira jaialdian.

Hauek dira: Alegiatik, Manex Karrera, Iker Navarro, Oihana Beraikoetxea eta Miren Salvador; Alzotik, Nerea Murua, Irati Zabala, Izaro Olano eta Irantzu Zubeldia. Anoetatik, Ainara Aranburu, Joana Garmendia, Laura Lasa eta Xabat Urkola; Iruratik, Joseba de Dios, Xabier Artola eta Nerea Esandi; Villabonatik, Alaitz Urkizu, Maria Villanueva, Eider Jauregi, Irati Artola, Xabier San Sebastian, Mikel Agirre, Nora Amondarain, Mirentxu Barbe, Itziar

Gastearena, Oihane Irazu, Lidia Maiz eta Iñigo Barbe; eta Zizurkiletik, Ainhoa Beobide, Ander Charro eta Arantxa Beobide. Miren Mujika eta Xabier Arizkorreta dira beraien irakasleak.

### Hobetzeko asmoz

Joseba de Dios irurarrak eta Irati Artola billabonarrak, beste hainbat bezala, aurten esperientzia errepikatuko dute. De Diosen *Little Tango* obra joko du eta bere asmoa iaz egindakoa hobetzea da.

Isats-piano baten jotzea «gustukoa» izan zuen. Artolak ere hobetzeko asmoa du eta horretarako 30 aldiz jotzen du egunero *Bals alemaniarrak* obra, hamar aldiz esku batekin, hamar beste eskuarekin eta hamar bi eskuarekin.

Miren Mujika irakasleak azaltzen duenez, «animatu egiten ditugu ikasleak jaialdian parte hartzera. Beraientzako esperientzia berezia da, isats-piano bat jotzen dutelako eta jendaurrean egiten dutelako».

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Joxe Manuel (Lizartza).** Atzoko partez, muxu handi bat, familia guztia eta batez ere Eñauten partetik.



### Urte askoan!

**Jon Dorronsoro Eizmendi.** 6 urte egin zituen atzo. Zorionak eta 6 muxu etxekoan partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak